

1. Data eta tokia
 - a. XVI. Sorginen Lasterketa irailaren 9an izango da. Atxondoko (Bizkaia) Axpe auzoan hasiko da goizeko 9etan, helmuga ere leku berean izangodelarik.
2. Ibilbidea
 - a. 21 km-tako distantzia eta 1750 metroko desnibel positiboa izango du. Lasterketako punturik garaiena Anbotoko tontorra izango da (1331m).
 - b. Eguraldi baldintzak egokiak ez baldin badira eta segurtasunagatik antolakuntzak horrela erabakitzen badu, Anboto igo ordeztu Anbotori buelta emango zaio.
3. Parte hartzaileak
 - a. 350 korrikalariren kupoa ezarriko da.
 - b. 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta 15 urtetik gorakoek gurasoen edo legezko tutoreen baimenarekin.
4. Kategoriak
 - a. Absolutu maila, gizonezko eta emakumezkoetan.
 - b. Beterano maila, gizonezko eta emakumezkoetan (40 urte edo gehiago probaren egunean).
 - c. Atxondoko lehen emakumezko eta gizonezkoa.
5. Izen emateak
 - a. Kirolprobak plataforman (www.kirolprobak.com) burutu ahalko dira izen emateak maiatzaren 1tik aurrera, goizeko 10etan zabalduko da horretarako epea.
 - b. 350 korrikalarien kupoa gauditu ondoren izena ematen dutenak itxaron zerrendan sartuko dira. Ondoren, izen emandakoren baten baja ematen baldin bada, itxaron zerrendakoei deituko zaie, izen emate ordenaren arabera.
 - c. Izen ematea burutzeko 25 € ordaindu beharko dituzte federatuek eta 29€ federatu gabeeak. Izena emateko azken eguna abuztuak 25a izango da, gaueko 23:59ak arte.
 - d. Abuztuaren 9tik aurrera, ez da diru itzulketarik egingo. Epe horretatik aurrera, itzulketak egiteko salbuespena dagokion ziurtagiria (laneko baja txostena, medikuaren txostena,...) aurkeztea izango da.
6. Derrigorrezko materiala
 - a. Txanodun zira edo txanorik ez baldin badu zirak, buff bat edo txano bat eraman beharko da aparte.
 - b. Edalontzia edo soft-flasha.
7. Dorsal banaketa eta kontsigna zerbitzua
 - a. Axpeko frontoian egingo da, goizeko 7:30etatik 8:40 arte.
 - b. Federatuek mendiko lizentzia erakutsi beharko dute dortsalajasotzerakoan.
 - c. Frontoian bertan, kontsigna uzteko aukera egongo da.
8. Irteera
 - a. Lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago irteera puntura hurbildu beharko dute korrikalariak eta bolondresek korrikalari bakoitzak derrigorrezko materiala duen ziurtatu dute.
9. Denbora muga
 - a. Zabalandiko anoa gunean (10 km gutxi gora behera, Anboto igo baino lehen) 2:15'00" baino lehenagoko denboran igaro beharko da. 2:15'00" pasatzen den korrikalaria metan 4:30'00" egon daitekeela dela kalkulatu dugu.

Korrikalariak denbora muga hori gainditzen badu, antolakuntzako bolondresak kotxez garraiatu ditzake korrikalariak edo bestela ibilbidea jarrai dezake dortsala kenduta eta beti ere atzeko korrikalariei bidea erraztuz.

10. Anoa gunekak

- a. Atxeko baserrian (6 km inguruan).
- b. Zabalandin (10 km inguruan, Anboto igotzen hasi aurretik).
- c. Pagazelain (12'5 km inguruan, Anboto jeitsi bezain laster).
- d. Guenzelain (16 km inguruan, Artola igoten hasi aurretik).
- e. Helmugan.
- f. Anoa guneeetan ura hartzeko korrikalari bakoitzak bere edalontzi edo shoft-flasha eraman beharko du.
- g. Anoa guneeetan edo bere inguruetan basura poltsak jarriko dira edozein zabor (gelen plastikoak, edalontziak,...) bertara botatzeko. Poltsa horietatik kanpo edozein zabor botatzen baldin bada, korrikalaria lasterketaz kanpo huts dezake antolakuntzak.

11. Helmugaratzea

- a. Helmuga lerroa gainditutakoan korrikalariak ezingo dira bertan geratu pilaketak ekiditeko. Antolakuntzako bolondresen gomendioak jarraituz, helmuga gurutzatutakoan seinalizatuta egongo den bidea jarraituko dute mangeren gune batetik pasatuz.
- b. Mangeren gune honetan korrikalariak oinetakoak garbitu ahal izango dituzte. Dutxetan sartu aurretik, derrigorrezkoa izango da aurretik oinetakoak mangeretan garbitzea, dutxak garbi mantentzeko.

12. Dutzak

- a. Axpeko frontoiaren atzekaldean izango dira dutxak.

13. Sari banaketa

- a. 13:30etan emango zaio hasiera sari banaketari (edo azken korrikalaria arinago heltzen bada, azken korrikalaria heldu ondoren) Axpeko plazan jarriko den eszenatokian.
- b. Ondorengo diru sariak egongo dira:
 - i. 1. emakume zein gizonezkoarentzat 250€.
 - ii. 2. emakume zein gizonezkoarentzat 175€.
 - iii. 3. emakume zein gizonezkoarentzat 100€.
- c. Lehen bost gizon eta emakume sailkatuek datorren urterako izen ematea debalde izango dute.

14. Proba puntuagarria

- a. Bizkaiko Mendizale Federazioko mendi lasterketen ligarako proba puntuagarria izango da.